



# ENPRESEN konfiantza

2019KO 3. HIRUHILEKORAKO  
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


# 2019KO 3. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



## 0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, **2019ko hirugarren hiruhilekorako** dituzten igurikimenen berri izateko. Bada, ondorio interesgarriak eman ditu, aurreko hiruhilekotik beherakada bat sumatu baita. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu.

Enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten aurreikuspenei dagokienez, % 59,5ek uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 11,9k hobetu egingo dela. Ikus daitekeenez, aurreko hiruhilekoan baino ezkorragoa da ikuspegia, eta, geroago ikusiko dugunez, aztertutako gainerako aldagai guztietan ere islatzen da hori.




# 1 FAKTURAZIOA

**Enpresek 2019ko hirugarren hiruhilekorako** aurreikuspen positiboak dituzte fakturazioaren harira: % 54,2ren ustez mantendu egingo da eta % 27,3ren ustez, hobera egingo du. Enprezen % 18,5ek uste du fakturazioa txarragoa izango dela.




## 2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, **2019ko hirugarren hiruhilekoan** jarduerak bere horretan segituko duela uste dutenen kopurua % 63,0koa da, eta egoerak hobera egingo duela uste dutenena % 17,2koa. Alabaina, % 19,7k uste du jarduerak txarrera egingo duela, eta **ehuneko hori aurreko hiruhilekoan baino nabarmen handiagoa da.**




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: zer portaera izango dute saldutako kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Emaitzek diote eskabideen bolumenak arrazoizko portaera izatea espero dela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 56,3k uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 26,1ek hobera egingo duela. Enpresen % 17,6k, ordea, eskabideen bolumenak behera egingo duela uste du.




## 4 | PREZIOAK

Prezioei dagokienez, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, inkestari erantzun diotenek %73,5ek uste du prezioek bere horretan jarraituko dutela **2019ko hirugarren hiruhilekoan**. Gainerako enpresei dagokienez, % 10,9k uste du prezioek gora egingo dutela eta % 15,5ek kontrakoa, prezioak beheratu egingo direla. **Azken bi balio horiek nabarmen aldatu dira aurreko hiruhilekotik hona.**



## 5 ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen errentagarritasunaren inguruko aurreikuspenei dagokienez, inkestari erantzun diotenen % 69,3k «berdin» jarraituko duela uste du, enpresen % 11,3ren ustez, handiagoa izango da, eta % 19,3k, azkenik, etekin txikiagoak espero ditu. Berriro ere, **aldaketa garrantzitsua gertatu da adierazle partzial horretan.**






## 6 | INBERTSIOA


Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera positiboa da, **baina aurreko hiruhilekoan baino nabarmen txarragoa**. Bestalde, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboa eta, ondorioz, langileen kopurua handitzeko asmoa dutela.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 67,2k uste du eutsi egingo diotela **2019ko hirugarren hiruhilekoan**. % 16,4k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 16,4k uste du behera egingo duela.



## 7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 69,7k erantzun du enpleguan ez dutela aldaketarik espero; % 16,4k langile-taldea handitzeko itxaropena du eta % 13,9k guztiz kontrakoa, plantilla murriztu egingo duela.




2019KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazle guztiak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, Konfiantza-indizea eskuratzeko, emaitza hau lortuko dugu: **51**. Horrek esan nahi du enpresen baikortasuna nabarmen murriztu dela aurreko hiruhilekotik hona (**57,5** aurreko hiruhilekoan). Pentsa daiteke, beraz, enpresek ez dutela horren ikuspegi baikorra ekonomiak **2019ko hirugarren hiruhilekoan** izango duen bilakaerari buruz. Dena dela, indizea 50 puntutik gora egonik, hedapen-eremuan gaude oraindik orain. Datu hori bat dator beste esparru geografiko interesgarri batzuetan, hala nola Espainian (apirileko datua: 52,9) eta Eurogunean (maiatzeko datua: 51,6), lortutako datuekin.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 59,6k uste du bere horretan jarraitu duela eta % 21,2k hobera egin duela. % 19,2ren iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 80 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 4,5ek salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 BEZEROEI KOBRAZKEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 80,6rentzat, bezeroei kobratzeko epean ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta enpresen % 16,3ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 3,1ek soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestauen % 75,8k erantzun du bankuen finantzaketa eskuratzeko aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 14,5ek dio hobetu egin dela, eta % 9,7k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2019AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN  
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA



## 12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Hurrengo irudian ikus daitezke aztertutako azken bi hiruhilekoetako adierazle partzialen eta aurreikuspen orokorraren balioak.



## Fitxa teknikoa eta metodologia

---

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.

---